

BILBOKO EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA EUSKARA-ELKARTEEN AZPIBATZORDEA

Batzarraren AKTA.

2017ko ekainaren 27an – 12:30 h

BERTARATUAK

Bilboko Udala

Jone Unzueta (Euskara eta Hezkuntzako zuzendaria)

Marijo Arrieta (Euskarako zuzendariordea)

Euskara-elkarteak

Berbaizu. Jon Intxaurreaga

Euskaltzaleen Topagunea. Manuel Moreno

Palanka taldea. Jon Iturriaga

Uztarri. Ainara Aretxabaleta

Idazkaritza teknikoa

Labayru Fundazioa. Lander Solozabal

GAI-ZERRENDA

1.- AURREKO BILERAREN (2017-05-26) AKTA ONARTU.

Marijo Arrietak hasiera eman dio bilerari, eta parte hartzaileei beraien **lana eta konpromisoa eskertu** die.

Aurreko bileraren **akta onartu** aurretik, **aldaketa batzuk** egin zaizkio, eta galdera eta ohar batzuk egon dira puntu batzuen inguruan:

- “euskara-elkarteak bisitatzeko jardunaldiak” jartzen duen lekuan, “euskara-elkarteak bistaratzeko jardunaldiak” utzi dugu, bigarren hori egokiagoa delakoan.

- “dokumentazio guztia izatekotan” tarteaz aldu du Jone Unzuetak: diru-laguntzen tramitazioa azkartu ahal izateko, Udalak agiri guzti-guztiak jaso behar ditu.

2.- ELKARTEEK EGINDAKO PROPOSAMENAK AZTERTU.

Marijo Arrietak eta Lander Solozabalek azaldu dute zein izan den aurreko bileratik honako prozesua:

- Miatzaren 26ko bileran adostu genuen ekainaren 9ra arteko epea jarriko genuela euskara-elkarteek ekarpen zehatzak egiteko galdera baten inguruan: **Zer egin ezagutza, erabilera eta motibazioa sustatzeko sektore zehatzetan (gurasoak, merkatariak, langabetuak, etorkinak, gazteak...)?**

- Ekarpenak bidali dituzte Berbaizu euskara-elkarteak (7) eta Topaguneak (14), eta beste elkartei ere berbidali zaizkie, aztertzeko.

- Bilera honetara begira, Euskara Sailak dokumentu bat prestatu du, eta hor agertzen dira zerrendatuta, labur eta zehatz, jasotako 21 ekarpenak.

- Bilera honen helburua da 21 ekarpen horiek denon artean argitu, azaldu, eta sailkatzea, eta lehenetsunak markatzea.

Berbaizuren jatorrizko dokumentuko ekarpen bat lotuta egon da diru-laguntzekin, baina hori aurreko bileran ahoz landu zenez, aktan jaso zenez, eta ez denez gaurko bileraren gaia, ez da agertu gaurko bilerako proposamen-zerrendan.

Tarte bat hartu dugu erabakitzeko **nola sailkatu** proposamenak (helburuka, gaika, bestela), eta **nola eman lehenetsunak** batzuei, **eta zeintzuei** eman. Azkenean, argazki hau egin dugu:

Hartzaileak	Gazteak	Familiak	Merkatariak	Etorkinak	9A 11
Ekarpenaren zenbakia (Ikusi ekarpenen orria)	<u>1</u>	<u>1</u>	<u>1</u>	<u>1</u>	
	6*	6*	5	2	
	8	8	<u>13</u>	<u>13</u>	
	9B*	9B*	14		
	10*	10*			
	<u>12</u>	<u>13</u>			
	<u>13</u>	14			
	<u>15</u>	<u>19</u>			
	16	20			
	<u>17</u>				
<u>18</u>					
GUZTIRA	11	9	4	3	

- Jasotako proposamen guztiak sailkatu ditugu **hartzaile-motaren arabera**, eta 4 esparrutan: **gazteak, familiak, merkatariak eta etorkinak**.

- **Ekarpen gehien dituen esparrua gazteena da (11), eta haren ostean familiak (9), merkatariak (4) eta etorkinak (3).**
- Lehenetasunak markatzerakoan, alde batetik, **transbertsalak** aukeratu ditugu (1 eta 13) eta, bestetik, **garrantzitsuenak** iruditu zaizkigunak (12, 15, 17, 18 eta 19).
- **Proposamen batzuk alde batera utzi ditugu** (6, 9A, 9B, 10 eta 11): gaiarekin zuzenean lotuta ez zeudelako, eginda daudelako, edo beste azpibatzerde batzuetan lantzen ari direlako.

3.- AUKERATUTAKO EKINTZAK MARTXAN JARTZEKO HURRENGO PAUSOAK ZEINTZUK DIREN AZALDU.

Marijo Arrietak eta Jone Unzuetak azaldu dute gaurko bileraren ondorioekin **txosten bat** prestatuko dugula, eta udazkeneko **Aholku Batzordera** eramango dugula.

Amaitutzat ematen dugu horrela azpibatzerdearen lehen fasea, helburu izan duena euskara-elkarteekin batera diagnostiko bateratu bat egitea, helburu orokorrak markatzea eta aurrera begirako ekintza zehatzak proposatzea eta lehenestea.

Hurrengo fasean, Euskara Sailak ekingo dio batutako lehenetasunezko proposamen zehatzak elkarlanean garatzen hasi eta inplementatzeari.

4.- GALDERAK ETA IRADOKIZUNAK

Jon Iturriagak esan du bbk live jaialdiak ekimen asko antolatu dituela euren auzoan, haiei ezer esan gabe eta bat ere ez dela euskaraz izan.

Manuelek esan du, batetik, Bilboko auzo bakoitzean euskara-elkarte bat egon beharko litzatekeela, euskararen aldeko politika zuzenago filtratzeko eta eraginkorragoa izateko; eta, bestetik, 2018an 11 egunez euskaraz bizitzeko aktibazioak erabileran izango duela eragina.

Bilbon, 2017ko ekainaren 27an

BILBOKO EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEKO IDAZKARIA